

Hau txosten ekonomiko zabalago baten laburpena baino ez da,
web honetan eskura daitekeena:/
Versión reducida de un informe económico más amplio disponible en:

www.berrikuntza.bizkaia.net
www.camarabilbao.com

9

Behatokia		Observatorio
2006ko lehen hiruhilekoa amaitu den honetan, badirudi Bizkaiko ekonomiaren jardura erritmoak handia izaten jarraitzen duela.	+	Transcurrido el primer trimestre de 2006, todo apunta a que el ritmo de actividad de la economía de Bizkaia continúa siendo elevado.
Industriaren Konfiantza Adierazleak eta Produkzio Indizeak industri sektorearen susperraldia egiaztatzen dute.	+	La evolución del Indicador de Confianza y del Índice de Producción Industrial avalan el proceso de recuperación del sector industrial.
Inkestaturako enpresen %40k dio produkzio handiagoa izan duela lehen hiruhileko honetan, horrek esan nahi du 3 portzentajezko puntu hazi dela 2005eko aldi berarekin konparatuz.	+	La producción aumenta en el 40% de las empresas encuestadas, lo que supone una mejora de 3 puntos porcentuales con respecto al mismo período de 2005.
Produkzio gaitasunaren erabilera %86koa izan da, aurreko urtekoa baino puntu bat handiagoa.	+	La utilización de la capacidad productiva se sitúa en el 86%, un punto más que un año antes.
Zerbitzuen sektoreak hazkunde eutsiaren ildotik jarraitzen du.	+	El sector de servicios prosigue la tendencia de crecimiento sostenido.
Aireportuko bidaiarien kopurua eta Portuko trafikoa aurreko urtean baino handiagoak izan dira.	+	El número de pasajeros del Aeropuerto y el tráfico del Puerto mejoran con relación al mismo período de un año antes.
Esportazioak hazi egin dira eta hazkunde hau indartzen bada, baliteke ekonomiaren hazkundera ere indartzea.	+	Se aprecia un repunte de las exportaciones que, de consolidarse, podría afianzar el crecimiento de la economía.
2006aren lehen hiruhilekoan 866 enpresa berri sortu ziren Bizkaian, hau da, aurreko urteko aldi berean baino 102 enpresa gehiago.	+	En el primer trimestre de 2006 se crearon en Bizkaia un total de 866 nuevas empresas, una cifra que supone un aumento en 102 sociedades respecto al mismo período del año anterior.
Bizkaiko langabezi tasa %6,3koa izan da, beraz, 2005eko lehen hiruhilekoan baino 2,2 puntu txikiagoa eta euro guneko batez bestekoa baino 2 puntu txikiagoa.	+	La tasa de paro de Bizkaia se sitúa en un 6,3%, 2,2 puntos por debajo de la del mismo período de 2005 y 2 puntos por debajo de la media de la zona euro.
teko ekonomiaren bilakaera onak susperraldiaren zantzuak baiesten ditu, eta 2005aren amaierako arriskuak hor badaude ere, ez dirudi ekonomiaren aurreikuspen positiboak ilunduko dituen elementu berririk agertuko denik.	=	El contexto de favorable marcha de la economía internacional confirma las señales de reactivación y, pese a que aún se mantienen los riesgos que existían a finales de 2005, no parece que puedan surgir nuevos elementos que hagan variar la positiva perspectiva económica general.

Industria

Bizkaiko Industriaren Konfiantza Adierazlearen 2006ko lehen hilabeteetako datuen arabera, industriaren sektorea hobetu egin da. Nolanahi ere, oraindik ez da iritsi aurreko urteko mailara.

Inkestaturtutako enpresen %40k dio produkzio handiagoa izan duela urtarill-otsaila bitartean, horrek esan nahi du 2005eko aldi berean baino egoera hobean gaudela, harako hartan %37k adierazi baitzuen produkzio handiagoa zuela.


Eskabide-zorroari dagokionez, kanpo merkatukoa hobetu bada ere, barne eskariaren geldialdiak ekarri duen uzurtasun edo atzerakuntza aurreko urtekoa baino zertxobait handiagoa izan da. Horrela, industrien %54k (%55 2005ean) adierazi dute eskabide-zorro egokia dutela beren produkzio gaitasuna ikusita, eta %11 izan dira (%13 2005ean) eskabide-zorro handiagoa dutela adierazi dutenak.

Industria

Los datos del Indicador de Confianza de la Industria de Bizkaia de los primeros meses de 2006 confirman la tendencia de mejoría del sector industrial. No obstante, todavía no alcanza los niveles de un año antes.

La producción aumenta en enero-febrero en el 40% de las industrias encuestadas, un dato que refleja una situación más positiva que en el año 2005, donde era un 37% el porcentaje de empresas que se encontraban en dicha situación.

En cuanto a la cartera de pedidos, aunque mejora la correspondiente al mercado exterior, el estancamiento de la demanda interior genera una situación algo más retraída que un año antes. Así, un 54% de las industrias (55% en 2005) consideran que su cartera de pedidos es adecuada a su capacidad productiva, situándose en un 11% (13% en 2005) las que opinan que aumenta.



Bizkaiko Industriaren Konfiantza Adierazlea

Oharra: Industriaren Konfiantza Adierazlea Bilboko Merkataritza Ganberaren Industri Abagunearen Inkestatik lortzen da eta enpresen uneko egoera eta negozio igurikapenak aztertzen ditu. Iturria: Bilboko Merkataritza Ganbera.

Indicador de Confianza de la Industria de Bizkaia

Nota: el Indicador de Confianza de la Industria se realiza a partir de la Encuesta de Coyuntura Industrial que elabora la Cámara de Comercio de Bilbao y mide la situación actual y las expectativas de negocio de las empresas. Fuente: Cámara de Comercio de Bilbao.

Produkzio gaitasunaren erabilera %86koa izan da, aurreko urtekoa baino puntu bat handiagoa.

Hurrengo hilabeteetarako aurreikuspenei gagozkiela, enpresarik gehienek egonkortasunaren aldeko apustua egin dute, hala ere, hazi egin da aurreikuspen positiboak dituzten enpresen kopurua: %29k produkzio handiagoa espero dute, %26k eskabide-zorro handiagoa, %11k salmenta gehiago eta %18k plantillako langile gehiago.

La utilización de la capacidad productiva se sitúa en el 86%, un punto más que un año antes.

Aunque la mayor parte de las empresas encuestadas apuestan por la estabilidad de cara a los próximos meses, aumenta el número de empresas con expectativas positivas, así: un 29% espera un crecimiento en la producción, un 26% en la cartera de pedidos, un 11% en las ventas y un 18% en la contratación de nuevo personal.

Eraikuntza

Txosten hau prestatzean ez ditugu eskura izan Bizkaiko eraikuntzaren sektoreari buruzko datu guztiak, beraz, ezin jakin dezakegu nolakoa izan den sektorearen urte hasierako bilakaera.

Urtearen lehen bi hilabeteetako lizitazio ofizialari buruzko datuak baino ez dauzkagu eta bi eboluzio desberdin gertatu direla ondoriozta dezakegu. Alde batetik, eraikuntza %75,1 hazi da, bestetik, obra zibila -%63,6 jaitsi da.

Construcción

En el momento de elaborar el presente informe no se dispone de suficiente información del sector de la construcción de Bizkaia como para poder valorar la marcha de la actividad en los compases iniciales del año.

Los únicos datos disponibles corresponden a la licitación oficial de los dos primeros meses del año y muestra dos evoluciones completamente dispares. Por un lado, la edificación muestra un crecimiento del 75,1%, por el otro, la obra civil retrocede en un -63,6%.

Zerbitzuak


Zerbitzuen sektoreak, oro har, hazkunde eutsiaren ildotik jarraitzen du.

Nolanahi ere, 2006ko lehen hilabeteetan txikizkako merkatariek konfiantza berreskuratu dute eta Bizkaiko Txikizkako Merkataritzaren Konfiantza Adierazleak egonkortasuna erdietsi du, nahiz eta egonkortasun maila hau 2005ekoa baino txikiagoa den. Dezente jaitsi da ohiko salmenta kopurua.

Servicios

El sector de servicios, en su conjunto, prosigue la tendencia de crecimiento sostenido.

Aún así, en los primeros meses de 2006 no se han cumplido las expectativas de recuperación del comercio minorista especializado situándose el Indicador de Confianza del Comercio de en una línea de estabilidad, si bien, en valores inferiores a los de 2005. Se produce un apreciable retroceso del nivel normal de ventas.




Aste Santuko oporrak apirilean izan badira ere, Bizkaiko hotel establezimenduek 179.628 bidaiari izan dituzte 2006ko urtarril-martxoan, hau da, aurreko urteko urtarril-martxoan baino 19.042 gehiago (%11,9ko hazkundera). Gau-igarotzeak ere nabarmen hazi dira (%10,3) eta 323.109 gau-igarotze erregistratu dira guztira.

Bidaiariak 2005eko martxoan eman zuten batez besteko egun kopurua 1,87koa izan zen eta 2006ko martxoan, aldiz, 1,84koa izan da. Ildo beretik, okupazio maila ere zertxobait jaitsi da: %43,88 2005eko martxoan eta %43,51 2006ko martxoan.


A pesar de que las vacaciones de Semana Santa han sido en el mes de abril, en enero-marzo de 2006 los establecimientos hoteleros de Bizkaia han registrado 179.628 viajeros, una cifra que supone 19.042 más que en el mismo período del año anterior, con un incremento del 11,9%. También se ha registrado un destacado avance en el número de pernoctaciones (10,3%), alcanzando un total de 323.109.

La duración de la estancia media en marzo ha pasado de 1,87 días en el año 2005 a 1,84 en el mismo mes del presente año. El grado de ocupación también ha disminuido ligeramente pasando del 43,88% en 2005 al 43,51% en marzo de 2006.




Azpiegiturak

2006ko lehen hiru hilabeteetan zehar, Bilboko Portuko merkatu-gaien trafikoak jarduera-maila positiboa erdietsi du, 2005ekoa baino handiagoa. %13,5 hazi da eta 8,7 milioi tona garraiatu dira guztira. Hazkunde hau kargatutako eta deskargatutako merkatugaien eboluzio onari zor zaio, %29,7 eta %8,5 hazi baitira hurrenez hurren.



Aste Santua apirilean izateak eragin handia izan du baita ere Bilbo-Loiu Aireportuko bidaiarien trafikoan, hartara, 2005eko martxoan baino hazkunde txikiagoa erregistratu da. 2006ko lehen hiru hilabeteetan 789.902 bidaiari erregistratu dira, hots, 2005eko aldi berean baino 27.587 gehiago (%3,6).

La coincidencia del período vacacional de Semana Santa en el mes de abril ha influido también en el tráfico de pasajeros del Aeropuerto de Bilbao-Loiu, produciéndose, así, un menor crecimiento que en el primer trimestre de 2005. De este modo, en los primeros tres meses de 2006 se alcanzaron un total de 789.902 usuarios, lo que supone un aumento de 27.587 viajeros (3,6%) con relación al mismo período de 2005.



Kanpo merkataritza


Txosten hau prestatzean Bizkaiko kanpo merkataritzari buruzko urtarileko datuak baino ez ditugu izan eskura, dena den, badirudi esportazioak suspertzen ari direla, izan ere, susperraldi horri esker, neurri batean, zuzendu egin da Bizkaiko merkataritza balantzaren desoreka.

2006ko urtarilean esportazioak 522,4 milioi eurokoak izan dira, hau da, %36 hazi dira 2005eko urtarilarekin alderatuz. Inportazioak, aldiz, 820,5 milioi eurokoak izan dira eta %17,1eko hazkundea erregistratu dute. Urtarileko defizitak 298,1 milioi euro erdietsi ditu, eta beraz, 2005eko urtarileko defizita baino 18,7 milioi txikiagoa izan da.

Comercio Exterior

Aunque a la hora de realizar el presente informe únicamente se disponen de los datos de comercio exterior de Bizkaia correspondientes al mes de enero, parece vislumbrarse una cierta recuperación de las cifras de exportación, lo que ha permitido corregir parte del desequilibrio de la balanza comercial del Territorio Histórico.

En enero de 2006 las exportaciones de Bizkaia alcanzaron los 522,4 millones de euros, lo que supone un incremento del 36% con respecto al mismo período de 2005. Las importaciones, por su parte, se situaron en 820,5 millones, con un aumento del 17,1%. El déficit de enero se ha situado en 298,1 millones de euros, 18,7 millones de euros inferior a al del mismo mes de 2005.




Enpresa dinamismoa

2006ko lehen hiru hilabeteetan zehar 866 sozietate berri sortu dira Bizkaian. Kapitalaren batez besteko ekarpena 119,2 milioi eurokoa izan da, beraz, enpresa bakoitzeko batez besteko kapitala 137.682 eurora iritsi da. Horrek esan nahi du 2005eko lehen hiruhilekoan baino 102 sozietate gehiago sortu direla eta kapitala 42.500 euro gutxiagokoa izan dela batez beste.

Dinamismo empresarial

A lo largo del primer trimestre de 2006 se crearon en Bizkaia un total de 866 nuevas sociedades con un capital medio aportado que ascendía a 119,2 millones de euros, lo que supone un capital medio de 137.682 euros por empresa. Estas cifras representan un aumento en 102 sociedades con relación al mismo período de 2005 y una disminución aproximada del capital medio de 42.500 euros.



Zerbitzuen sektorearekin lotutako jarduerak lehen postuan daude, hau da: enpresa sortu berrien %66 dira eta 23 sozietate gehiago sortu dira. Eraikuntzaren sektorean 137 enpresa berri daude, hau da, Bizkaian 2006ko lehen hiruhilekoan sortutako enpresa guztien %19 dira eta 19 enpresa gehiago dago. 2006ko urtarril-martxoan sortutako sozietateen %14 industriaren sektorekoak dira, eta, beraz, 2005eko lehen hiruhilekoan baino 59 enpresa gehiago dago.

El mayor número de empresas creadas corresponde al sector de servicios, con un 66% del total, y un aumento en 23 sociedades. En el sector de la construcción se han constituido 137 empresas, suponiendo un 19% de las empresas creadas en el primer trimestre y aumentando en 19 compañías. Un 14% del conjunto de sociedades creadas en enero-marzo de 2006 corresponde al sector industrial, habiéndose constituido 59 empresas más que en el primer trimestre de 2005.

Lan merkatua


2006ko lehen hiru hilabeteetan lan merkatuaren eboluzioak 2005eko azken hilabeteetako joerari eutsi dio. Langabetuen kopuruak hoberantz egin du eta okupatuak, berriz, txarrerantz.

Lehen hiru hilabete hauetan, 32.800 langabetu erregistratu dira, hots, 2005eko lehen hiruhilekoan baino 12.700 gutxiago. Bestalde, okupatuak 484.200 izan dira guztira, beraz, 3.000 okupatu gutxiago erregistratu dira. Horrela, Bizkaiko langabezi tasa %6,3koa izan da, 2005eko lehen hiruhilekoan baino 2,2 puntu txikiagoa eta euro guneko batez bestekoa baino 2 puntu txikiagoa.

Mercado de trabajo

La evolución del mercado de trabajo de Bizkaia a lo largo del primer trimestre de 2006 ha seguido la misma tendencia de los últimos meses del año anterior, con una mejora en las cifras de la población desempleada y un pequeño deterioro de la ocupación.

Así, el número de parados se situó, en el primer trimestre, en 32.800 personas, lo que supone una disminución en 12.700 con respecto al mismo período de 2005. La cifra de personas ocupadas, por su parte, disminuyó en 3.000, alcanzando un total de 484.200. Con estos datos, la tasa de paro de Bizkaia se sitúa en un 6,3%, 2,2 puntos por debajo de la correspondiente al mismo período de 2005, y dos puntos porcentuales por debajo de la media de la Zona Euro.



BIZKAIKO EKONOMI ADIERAZLEAK	Iturria	Epea	2005	2006	% 06/05
JARDUERA					
- Industriaren Konfiantza Adierazlea	CCB	Urtarril-otsaila	0	-5	--
- Industri Produkzioaren Indizea (1)	EUSTAT	Urtarril-martxoa	0,3	9,4	--
- Industriako Energia Elektrikoaren Kontsumoa (milaka MWh)	IBERDROLA	Urtarril-martxoa	2.124	2.170	2,2
- Produkzio Gaitasunaren Erabilera (%)	CCB	Urtarril-otsaila	85	86	--
- Eskabide-zorroa (2)	CCB	Urtarril-otsaila	-19	-24	--
- Zementu Kontsumoa (milaka tona.)	OFICEMEN	Urtarril-aben*	660	648	-1,8
- Lizitazio Ofiziala (milioi euro)	SEOPAN	Urtarril-otsaila	157.514	95.857	-39,1
- Hasitako etxebizitzak	VAS-GV	Urtarril-urria*	5.633	5.337	-5,2
- Bilboko Portuko merkatugaiei Trafikoa (milaka tona.)	AUT. PORT.	Urtarril-martxoa	7.671	8.704	13,5
- Loiu Aireportuko bidaiariari Trafikoa (milaka pertsona)	AENA	Urtarril-martxoa	762	790	3,6
- Gau Igarotzeak hoteletan (milaka pertsona)	EUSTAT	Urtarril-martxoa	293	323	10,2
- Merkataritzaren Konfiantza Adierazlea	CCB	Urtarril-otsaila	-20	-23	--
ESKABIDE ETA PREZIOAK					
- Kontsumitzailearen konfiantza adierazlea	FCVN	I. hiruhilekoa	-2	-3	--
- Ibilgailuen Matrikulazioa	DGT	Urtarril-martxoa	7.200	7.474	3,8
- Industri Ibilgailuen Matrikulazioa	DGT	Urtarril-martxoa	1.828	1.794	-1,9
- Bizkaiko KPI	INE	Martxoa	112,3	116,3	3,6
- Txikizkako Merkataritzaren salmenten Indizea (3)	EUSTAT	IV. hiruhilekoa*	153,5	133,2	3,7
LAN MERKATUA					
- Biztanle Okupatuak (milaka pertsona)	EUSTAT	I. hiruhilekoa	487,2	484,2	-0,6
- Biztanle Langabetuak (milaka pertsona)	EUSTAT	I. hiruhilekoa	45,5	32,8	-27,9
- Langabezi Tasa (%)	EUSTAT	I. hiruhilekoa	8,5	6,3	--
- Erregistraturiko Langabezia (milaka pertsona)	INEM	Martxoa	52,9	51,2	-3,2
- Gizarte Segurantzako Afiliatuak (milaka pertsona)	MTAS	Martxoa	456,1	465,6	2,1
KANPO SEKTOREA					
- Esportazioak (milaka euro)	ADUANAS	Urtarrila	384	522	36,0%
- Inportazioak (milaka euro)	ADUANAS	Urtarrila	701	820	17,1%
ENPRESA DINAMISMOA					
- Sozietateen sorrera	CCB	Urtarril-martxoa	764	866	13,3

(1) Aurreko urteko aldi berarekin konparatuz izandako gehikuntza
(2) Erantzunen saldo garbia
(3) Aurreko urteko aldi bereko batez bestekoaren gaineko gehikuntza
* 2004 eta 2005 urteak

INDICADORES ECONÓMICOS DE BIZKAIA	Fuente	Período	2005	2006	% 06/05
ACTIVIDAD					
- Indicador de Confianza de la Industria	CCB	Enero-febrero	0	-5	--
- Índice de Producción Industrial (1)	EUSTAT	Enero-marzo	0,3	9,4	--
- Cons. de Energía Eléctrica en la Industria (miles MWh)	IBERDROLA	Enero-marzo	2.124	2.170	2,2
- Utilización de la Capacidad Productiva (%)	CCB	Enero-febrero	85	86	--
- Nivel de la cartera de pedidos (2)	CCB	Enero-febrero	-19	-24	--
- Consumo de Cemento (miles Tm.)	OFICEMEN	Enero-diciembre*	660	648	-1,8
- Licitación Oficial (millones euros)	SEOPAN	Enero-febrero	157.514	95.857	-39,1
- Viviendas iniciadas	VAS-GV	Enero-octubre*	5.633	5.337	-5,2
- Tráfico de mercancías Puerto de Bilbao (miles Tm.)	AUT. PORT.	Enero-marzo	7.671	8.704	13,5
- Tráfico de pasajeros Aeropuerto Loiu (miles personas)	AENA	Enero-marzo	762	790	3,6
- Pernoctaciones en hoteles (miles de personas)	EUSTAT	Enero-marzo	293	323	10,2
- Indicador de confianza del Comercio	CCB	Enero-febrero	-20	-23	--
DEMANDA Y PRECIOS					
- Índice de confianza del Consumidor	FCVN	I trimestre	-2	-3	--
- Matriculación de Automóviles	DGT	Enero-marzo	7.200	7.474	3,8
- Matriculación de Vehículos Industriales	DGT	Enero-marzo	1.828	1.794	-1,9
- IPC Bizkaia	INE	Marzo	112,3	116,3	3,6
- índice de Ventas del Comercio Minorista(3)	EUSTAT	IV trimestre*	153,5	133,2	3,7
MERCADO LABORAL					
- Población Ocupada (miles personas)	EUSTAT	I trimestre	487,2	484,2	-0,6
- Población Parada (miles personas)	EUSTAT	I trimestre	45,5	32,8	-27,9
- Tasa de Paro (%)	EUSTAT	I trimestre	8,5	6,3	--
- Paro registrado (miles personas)	INEM	Marzo	52,9	51,2	-3,2
- Afiliados a la Seguridad Social (miles personas)	MTAS	Marzo	456,1	465,6	2,1
SECTOR EXTERIOR					
- Exportaciones (millones de euros)	ADUANAS	Enero	384	522	36,0%
- Importaciones (millones de euros)	ADUANAS	Enero	701	820	17,1%
DINAMISMO EMPRESARIAL					
- Creación de sociedades	CCB	Enero-marzo	764	866	13,3

(1) incremento con relación al mismo período del año anterior. Datos corregidos a efecto de calendario.
(2) saldo neto de respuestas
(3) incremento sobre la media del mismo período del año anterior
* años 2004 y 2005

